

Dalia eraisten hasi dira

Gaur, 2024ko ekainaren 13an, egiaztatu dugu dagoeneko hasita daudela Gernikako Dalia fabrika zaharra eraisteko lanak. Hain justu ere, Guggenheim Bilbao Museoaren Fundazioak eta Bizkaiko Foru Aldundiko agintariek toki horixe aukeratu dute Guggenheim Urdaibai proiektuak barne hartzen dituen bi egoitzetako bat jartzeko.

Aurtengo urtarrilaren 22an, Iñigo Urkullu lehendakariak Guggenheim Urdaibai proiektuaren bideragarritasunari buruzko gogoeta-aldi bat iragarri zuen ustekabeen, eta Busturialderako garapen ekonomikoko plan bat lantzeko beharra iradoki zuen, herritarren adostasunean eta parte-hartzean oinarritua. Ordutik, Dalia eraisteari buruzko albiste gutxi irakurri ditugu, nahiz eta EAJren hautagaiek aho handiz iragarri zuten 2023ko maiatzean, udal eta foru hauteskundeetarako kanpainan.

Garai hartan zera argitaratu zen: Guggenheim Urdaibai proiektuari zegokion lehen eraikina orain Dalia dagoen lurretan kokatuko zela. 2023ko maiatzaren 10ean, gaur egun diputatu den Elixabete Etxanobek hitz harrigarri hauek bota zituen hatueskunde-kanpainako Gernikako agerraldian: «[Konpromisoa hartzen dut industria-hondakin horiek proiektu bakar eta berritzaile bihurtzeko, Urdaibai eraldaketaren eta jasangarritasunaren erreferente global izan dadin](#)» (Mirari Artime, El Correo, 2023ko maiatzaren 19a).

Jarraian, Industria Ondare eta Herri Laneko Euskal Elkarteak (AVPIOP) Etxanoberen hitzak zuzendu zituen: «Dalia ez da inola ere industria-hondakin bat, ondarea baizik. Luis María de Gana y Hoyos arkitektoaren obra esanguratsua da».
(“<https://www.elcorreo.com/elecciones/forales-municipales/guggenheim-urdaibai-primeros-pasos-derribo-fabrica-dalia-20230519130710-nt.html>”, 2023/05/2).

Aurrerago, 2023ko uztailaren 4an, Aitor Estebanek Teresa Riberoren Trantsizio Ekologikoko Ministerioarekin sinatutako hitzarmen baten berri eman zuen, eta harro adierazi zuen Espainiako gobernuari 40 milioi euro atera zizkiola «nazio mailako egitasmoari» (sic) behin betiko bultzada emateko. Akordio horretan, Dalian egin beharreko lanak diruz laguntzea adostu zen, eta ingurumena hobetzeko helburua azpimarratu zen; osteraz, ez zen museorik aipatu (halere, kontuan hartu behar da fabrika abandonatuta eta amianto kutsatuta egon dela ia lau hamarkadatan eta orain arte inori ez zaiola otu hura deskontaminatzea). Ordutik, jeltzaleek ez dute egitasmoaren alderdi horri buruzko iritzirik eman.

Hala ere, proiektu honek aurrera egiteko ezinbestean kendu beharreko oztopo administratibo guztiak desagerrarazten jarraitzen du Aldundiak, Juan Ignacio Vidarte Guggenheim Bilbao Museoko zuzendari nagusiak iazko irailean adierazi bezala: “[desbroce administrativo que es fundamental para la posibilidad de que el museo se desarrolle](#)” (2023/09/10, El Correo). Eta, hala, denbora honetan guztian, benetan egin beharreko gauza bakarra geratu da egin barik: hausnartu.

Bestalde, Guggenheim Urdaibai Stop plataformak proiektuaren aurkako mozio bat aurkeztu zuen Gerninako Udalean joan den maiatzaren 29ko osoko bilkuran. Horri erantzunez, Jose Maria Gorroño alkateak adierazi zuen ez dagoela ez egitasmoari buruzko informaziorik, ez ingurumenari buruzko txostenik, ez adostasunik. Beraz, hainbeste zalantza badaude proiektu honen inguruan, zergatik sinatu zen 2023ko maiatzean Dalia eraisteko lizentzia? Zergatik sinatu zen udalez gaindiko hitzarmen bat Muruetako eta Foruko alkate jeltzaleekin batera, erabateko eskua emateko Aldundiari hiru udalerrietako hirigintza-planak aldatzeko, egitasmo horri leku egiteko helburu bakarrarekin? Gernikaren kasuan, Daliaren eta haren inguruarekin lotutako aldaketak dira.

Gaur, Guggenheim Urdaibai Stop Plataformak tinko eta ozen salatzen du: Dalia eraisten hasi dira. Eta eraiste horrek argi eta garbi erakusten du saldu nahi izan diguten gobernantza-modu berria paper errea dela.

Lur kutsatuak, uholde-arrisku handieneko eremua, azpiko akuiferoa are gehiago kutsatzeko arriskua, industria-lurak ekipamendu-lur bihurtzea ezinbestean... Eta hori guztia, ustez, inolako helburu zehatzik gabe, sinatutako akordioan eta eraistea ahalbidetzeko emandako lizentzian ez baita aipatu ere egiten Guggenheim Urdaibai proiektua.

Egitasmoaren bideragarritasunari buruz hausnartu barik, herritarrei jakinarazi barik, eskualdeko udalen artean adostu barik, herritarrek eta udalek parte hartu barik. Lotsa barik!